

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Ordezko bake-epailea aukeratzea

Joseba Koldo Garitagoitia Odria, Alegría-Dulantziko Udaleko alkate-udalburua, honako hau jakinarazten dut:

Udaleko Osoko Bilkurari dagokio udalerrri honetako ordezkio bake-epaile izendatuak izateko pertsonak aukeratzea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikuluan eta hurrengoetan eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan (1995eko uztailaren 13ko BOE) xedatutakoaren arabera.

Ediktu hau ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita, hamabost egun balioduneko epea irekitzen dela interesatuta dauden eta legezko baldintzak betetzen dituzten pertsonen udaleko erregistro orokorrean aurkeztutako eskabide-orriaren bidez eska dezaten, honako dokumentazio hau aurkeztuz:

- 1) NANaren fotokopia.
- 2) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jasoko dituenak:
 - Dolozko delituagatik zigortu ez izana (edo, hala badagokio, errehabilitazioa lortu izana).
 - Dolozko delituagatik auzipetua edo erruztatua ez egotea.
 - Eskubide zibilak baliatzen ari dela bete-betean.
 - Espainiarra dela, adinez nagusia, funtzio judizialerako fisikoki edo psikikoki eragozpenik ez duela eta herri horretan biziko dela, Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak baimena eman ezean.
 - Ez dagoela inongo ezintasun, bateraezintasun edo debekuren eraginpean. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 389.etik 397.era.

- 3) Bere hautagaitzaren egokitasuna argudiatzen duen memoria laburra.

Sortzen diren zalantzen aurrean, alkatetzak aurreko alderdiak egiaztatzen dituen agiri egokia aurkezteko eskatu ahal izango du, izan daitekeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Hala eskatzen duenari, kargu hori izateko behar diren baldintzen berri emango zaio udalean, bai eta kargu hori betetzea eragozten duten ezintasun- eta bateraezintasun-arrazoien berri ere.

Denek jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Alegría-Dulantzin, 2026ko martxoaren 6an

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA